

ARRETAZ ENTZUTEN DUT**“Ez entzutearen jolasa”¹**

Komunikazioa oso inportantea da pertsonen arteko harremanetarako, eta horretaz ohartzeko proposatzen da jarduera hau.

Ondoren, azaltzen den dinamikan, jarrera batzuk nahita mantentzea proposatzen da, aztertzekeo zer-nolako ondorioak dakartzaten inguruan dauden pertsonengan.

Bi talde sortuko dira. Talde bat gelan geratuko da eta bestea bertatik aterako da. Gela geratu diren ikasleei kanpoan daudenei kontatzeko istorio bat pentsatzeko eskatuko die irakasleak. Kanpoan daudenei, ordea, barrukoek istorio bat kontatuko dietela esango die, baina entzun izan ez balute bezala egin beharko dutela (beste alde batera begiratu, erlojuari begiratu, aharrausi eginez, aspertuta dauden itxura eginez... Barrukoek ez dute jakingo kanpokoek zer egingo duten.

Barruan geratu direnek istorioa prestatzen bukatzen dutenean, kanpokoak sartuko dira eta bikoteak egingo dituzte (barruko norbait kanpoko norbaitekin), eta bakoitzak bere rola egingo du. Irakaslea saiatuko da kanpora atera den taldea kanpoan ahalik eta denbora gutxien izaten. Horretarako, jarraibide argi eta laburrak eman behar dizkie barruan daudenei. Entzute aktiboaren jarraibideak hauek izan daitezke:

- Hitz egiten duenari begietara begiratu eta entzuten duenari begiratu.
- Jarrera positiboa gorputzean eta buruan: kidearen parean jarri eta irribarre egin.
- Hitz egitean txandak errespetatu: hitz egiten ari denari ez moztu eta ez epaitu.
- Esaten ari dena ulertzeko galderak egin.
- Beste pertsonak esan duena laburtu, haren iritzia azaldu.
- Laburpenaren ondoren, entzundako argudioei buruzko iritzia eman.
- Iritzi propioak eman daitezke, baina beti ere aurreko puntuak errespetatzen baldin badira.

Jarduera bukatzen denean, istorioa prestatu dutenek (hitz egin dutenek) nola sentitu diren azalduko dute.

Azkenik, talde txikietan, zerrenda bat egingo da entzute aktiboaren jarraibideekin. Ondoren, talde handian osatuko dira guztion artean, eta jarraibide horiek gelan zintzilikatuko dira gogoan izateko.

¹ Ezeiza Urdangarin, B., Izagirre Gorostegi, A. eta Lakunza Arregi, A.: *Adimen emozionala (12- 14 urte bitartek ikasleentzat)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 2008. Moldatua